



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 24a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Foru Lege proposamena, hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuak osasunaren arloan eginiko politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Errege Bardea mendi publikoaren jabetza Nafarroaren ondasun higiezin gisa inskribatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kontsumo apaleko lanparen Renove plan bat abian jar dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzaren ikuskapena egin dezan, Etxebizitzari buruzko Legean etxebizitzaren okupazioaren eta erabileraren gainean ezarritakoa betetzeari dagokionez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da indargabetu dezan Nafarroako Errege Bardearen zati bat defentsa nazionalerako lehentasunezko interesgune deklaratzeko duen dekretua, eta tiro poligono militarra mantentzearen aurka agertzen da. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da mendekotasun gradu eta mailen balorazio baremoa aplikatzeko irizpideak 504/2007 Errege Dekretuaren eta 39/2006 Legearen arabera presta ditzan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hurrengo lan eskaintza publikoan sar dezan musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan irakasleen kidegoetan sartzeari, igotzeari eta espezialitate berriak hartzeari buruzko erregelamendua. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko edo igotzeko hurrengo deialdietan lanpostu hutsen zerrenda bakarra ezar dezan, halako moduz non ez den behartuko aukera egitera hizkuntza arrazoiak direla eta. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait alderdi kontuan har ditzan irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko proben deialdietan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza desberdinetan idatz ditzan Arellanoko villa erromatarreko interpretazio zentroan bisitarien eskura jartzen diren informazio guztiak, bai eta Nafarroako eskaintza turistikoan sartuko diren guztiak ere. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, milurtekoaren garapen helburuei babesa ematekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak duen iritziari buruzkoa, 2009ko Estatuko aurrekontu orokorretan aurreikusten diren inbertsioei dagokienez, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak emandako informazioak eta aurkeztutako galderen erantzunak beti osatu gabeak izaten diren edota galdetutakoari ez dioten erantzuten, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (19. or.).
- Galdera, Euskararen Legea betetzeari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko zer egingen duen Hezkuntza Departamentuak kalitatearen kudeaketa-sistemetan sartuta dauden ikastetxeek iragan behar dituzten auditorietatik ondorioztatzen diren balizko ohar eta gomendioak direla eta, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Lizarra-Olazti galtzadak jasandako hondatzearen berri, Román Felones Morrás jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Bardeako tiro poligonoko errentamendu-kontratua berritzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Sinboloei buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Cortesen lurzatieen berrantolamendua etetzeari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (23. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Barañain Auditorioa fundazioari ematen dion laguntzari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliz paratu diren bide-seinaleetan agertzen diren toponimo ez zuzenei buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (24. or.).
- Galdera, Erronkariko ur-amilei buruzko proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena egin ez izanari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (27. or.).
- Galdera, 2000-2008 aldian Klinika Unibertsitarioan artatutako gaixo kopuruari eta eginiko azterketa eta proba kirurgikoei buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (28. or.).
- Galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreata integrala emateari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (29. or.).
- Galdera, Reyno Gourmet publizitate kanpainari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (29. or.).

- Galdera, ibaiertzak lehengoratzeko proiektuei eta programei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin [\(30. or.\)](#).
- Galdera, debekua betetzeari eta ibaietako ekosistemari kalte egin ahal izan dioten gorabeherari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin [\(31. or.\)](#).
- Galdera, ibaietako oztopoak iragazkorrago egiteko zenbait proiektuari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin [\(32. or.\)](#).
- Galdera, Amuarrainaren Lantalde Teknikoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin [\(33. or.\)](#).
- Galdera, Natura 2000 Sareak ukitutako herriguneetan araztegi berriak egiteari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin [\(34. or.\)](#).
- Galdera, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako zenbait eskola-daturi buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin [\(35. or.\)](#).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2008ko urriaren 16an egindako Osoko Bilkuran, hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak aurkeztu eta 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko azaroaren 17ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak osasunaren arloan eginiko politika orokorrari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak osasunaren arloan eginiko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, idazki honen bidez, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, Foru Gobernuaren osasun arloko politika orokorrari buruzko jabeldura aurkeztu dio Osasun kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

Zioak

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea kezkaturik dago osasun publikoak gure erkidegoan duen egoera dela eta.

Egunero, edo ia egunero, irakur ditzakegu hedabideetan osasunari buruzko albisteak. Astero-astero azaltzen da talderen bat jendaurrean, osasun publikoak Nafarroan duen egoera txarra salatzera –arraroa da halako salaketarik egiten ez den astea–.

Hau da une honetan dugun egoera: medikuak falta dira, eta horri ez zaio konponbide egokirik

ematen; itxaron-zerrenden arazoak hor dirau konpontzeke; hor daude adimen-osasunaren arloko laguntzako defizita, zenbait kontusailetakoen gastuaren deskontrola, antolamendu eta protokolo eza osasun-garraioaren funtzionamenduari dagokionez, oinarrizko osasun-laguntzaren arloko arazoak, larrialdi-zerbitzuetako saturazioa, hitzarmenen deskontrola, plangintzarik eza, baliabide ekonomikoen erabilera okerra eta abar.

Une honetan arazo horiek ditugu, eta horrek kezkutzen gaitu, baina orobat kezkutzen gaitu ikusteak Nafarroak aspaldi utzi ziola osasun arloko erreferente nazionala izateari. Egiaztatzen dugu autonomia erkidego askok hartu digula aurrea auzi askotan, hala nola bereizmen handiko zentroen auzian, ikerketaren alorrean, errezeta elektronikoen ezarpenean, oinarrizko osasun-laguntzari buruzko 21eko estrategia abiaraztean eta beste hainbat eta hainbat auzitan.

Hori dela eta, osasun-prestazioen kalitateari dagokionez herritarrak bereziki sentsibilizatuta daudelako eta interes orokorrekoa delako, osasun arloko politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu dugu.

Jabelduraren testua:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari, azalpenak eman ditzan aplikatzen ari den osasun arloko politikari buruz eta hurrengo ekitaldietan hartuko dituen neurriei edo jarduketari buruz, osasun arloko politikaren arloko plangintza, efizientzia, kudeaketa eta kalitatea hobetze aldera.

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Errege Bardea mendi publikoaren jabetza Nafarroaren ondasun higiezin gisa inskribatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Errege Bardea mendi publikoaren jabetza Nafarroaren ondasun higiezin gisa inskribatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako koroa Nafarroako Errege Bardearen jabe izan da mendez mende, eta beti eutsi dio haren jabariaren titulartasunari, ez baitu sekula laga. Mendeak joan mendeak etorri, ordea, zenbait erabiltzaileri –orain gozamen-kide deitutako ei– zenbait aprobetxamendu laga dizkie, nekazaritza eta abeltzaintzakoak soilik izan direnak beti.

Entitate gozamen-kideek eta Bardeako Batzarrek ez dute errentan emateko batera titulurik, eta Errege Bardeari ezin diote eman beste erabilerririk, nekazaritza eta abeltzaintzarako laga zitzaizkion erabilerez eta tradizioz mantendu direnez haratago.

Nafarroako artxiboetan, eta zehazki Nafarroako Comptos Ganberan, sekula laga ez diren eta jabariaren titularrak beti mantendu dituen bestelako aprobetxamendu batzuei buruzko adibide ugari

dago, esaterako defentsarako, ehizarako, eta baita oihan-aprobetxamenduak ere. Orain paradoxikoa bada ere, aipagarria da arteen salmenta, sustraiak barne, egur-ikatz ekoizteko.

Nekazaritza eta abeltzaintzako lagapen-har-tzaileek Bardeako Entitate Gozamen-kideen Erki-degoa osatzen dute orain. Entitate gozamen-kideak 22 dira guztira. Hori dena zehatz-mehatz jasota dago. Ez dago, ordea, jabari-lagapeneko edo jabetza soilaren lagapeneko kasu bakar bat ere, ezta horri buruzko aipamenik txikiena ere.

Gaztelako Koroak Nafarroako Koroaren lekua bidegabeki hartu zuenean Pirinioaren hegoaldeko Nafarroaren botere publikoaren edukitzean, Gaztelako Koroak Bardearen jabari-titulartasuna hartu eta baliatu zuen. Eta geroago, estatuak berak. Eta hori guztia entitate gozamen-kideen nekazaritza eta abeltzaintzako aprobetxamenduak eragotzi eta murriztu gabe.

Errege Bardea beti hartu izan da Estatuaren esku dagoen Nafarroaren menditzat, Nafarroak beti eskatu izan duena.

Foru Hobetzeko laugarren xedapen iragankorreko 7. idatz-zatian aurreikusi zen Nafarroak eta Estatuak hitzarmen bat egin ahal izatea, Foru Hobetzea sinatu arte Estatuaren esku zeuden mendiak Nafarroari transferitu ahal izateko. Laugarren xedapen iragankorreko 7. idatz-zati horretan ez da mendi horien zerrendarik ematen eta ez da esaten horiek zeintzuk diren.

Aezkoako mendia –Nafarroako mendi kataloguetan 1. zenbakia darama eta arestian aipatutako mendi horietako bat zen– banakako eskualdaketa zuzen baten xede izan zen, 1982ko martxoaren 31ko estatuko legearen bitartez. Estatuak zuzenean transferitu zion Aezkoako Batzarri.

Martxoaren 16ko 8/1991 Foru Legearen zioen azalpenean bederatzi mendi aipatzen dira, eta horiei buruzko zazpi xedapen ematen dira. Hona mendiok: Kintoa, Erregerena, Legua Acotada, La Cuestión, Txangoa, Urbasa, Andia, La Planilla eta Aralar. Foru lege horretan xedatu zen zazpi lagapen egitea, doan, zenbait toki entitateri. Espresuki xedatu zen mendi horietako bakoitzaren banaezintasuna eta herrilur izaera.

8/1991 Foru Legearen zioen azalpenean, bada, adierazten da “eskualdaketa hori, Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Eskualdaketa Batzordeak 1987.eko otsailaren 9an egindako bilkuran sinatutako erabaki baten ondorioz burutu” zela. Baieztapen horrek honako ondorioak ateratzera garamatza: A) Ez da formalizatu Foru Hobetzearen laugarren xedapen iragankorreko 7. idatz-zatian aurreikusitako hitzarmena. B) Ez dago justifikatuta zioen azalpenean jasotzen den interpretazioa; alegia, Foru Hobetzeko laugarren xedapen iragankorreko 7. idatz-zatian aipatzen diren mendiak foru lege horretan aipatutako bederatziak direla. C) Ez dira aipatzen ez Aezkoako mendia –lehenago transferitua zegoena– ez Errege Bardea.

Oraindik ez dira behar bezala garatu ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea eta apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea –horien bidez definitzen da ingurumen-babesaren esparru juridikoa eta deklaritzen da Errege Bardea natur parke–. Horri buruz beste ekimen batzuk abiarazi dira.

Zalantzarik ez da, ordea, Errege Bardeak gaur egun pairatzen duen eraginik garrantzitsuena zor zaiela poligono militarra hor egoteari, mantentzeari eta luzatzeari eta Errege Bardeako Komunitateak erabilera militarerrako “errentan eman” izanari.

Horren guztiaren froga eta ondorioa da Errege Bardeako lurak sekula ere inskribatu ez izana Jabetzaren Erregistroan. Eta hori hala da, nahiz eta erabiltzaile asko sarritan saiatu diren inskribatzen, alferrik saiatu ere.

Jakina, jabariaren titularrak baizik ezin du hura inskribatzeko eskatu, gozamen eskubideen titularrak ezin baitute halakorik egin.

Jabetzaren Erregistroko inskripzioa, administrazio-erantzukizuneko egintza bat izateaz gain,

lege-betebehar bat da, hala baitago ezarrita foru administrazioari buruzko foru legean, ogasun publikoari buruzkoan eta abar.

Bukatzeko, ez da aiantzi behar Errege Bardea higiezin banaezin eta herrilur izaerako gisa dagoe-la kalifikatuta. Higiezin hori ez dago inongo udali atxikirik, eta ukaezina da horren batasun-izaera; hartara, beharrezkoa da aipatu deklarazioa egitea, koherentea dena, bestalde, 8/1991 Foru Legeak arestian aipatutako zazpi mendiei buruz egiten duenarekin.

Errege Bardeako jabariaren titularra Nafarroako herria da; alegia, gizon eta emakume nafar guztiak.

Areago, Foru Parlamentuaren betekizuna da hurrengo belaunaldientzat garrantzi aparta duen naturgune hori zaintzea eta erabilera zibil eta ingurumenekoetarako uztea. Modu bakarra dago hainbat esku-sartzek –esaterako, abenduaren 1eko 1943/2000 Errege Dekretuak– planteatzen duten auzia bide politiko hutsen bidez, ezen ez bide juridikoen bidez, konpontzeko: Nafarroako Parlamentuak bere gain hartzea arlo horretan duen erantzukizuna.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan, Nafarroako Foru Komunitatearen ondasun higiezin gisa inskribatu ahal izan dadin Errege Bardea izenez ezagutzen den mendi publikoaren jabetza.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumo apaleko lanparen Renove plan bat abian jar dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontsumo apaleko lanparen Renove plan bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Lurraldeak ingurumen-iraunkortasunaren alde-tik duen ahalmenak eta energien zentzuzko erabi-

lerak izan behar dute bizi dugun eredu sozial, ekonomiko eta garapenezkoaren funtzionamenduaren oinarri. Energia garbien ekoizpena babesteko premiaz haratago, energiarik garbiena da, inondik ere, kontsumitu behar ez delako ekoizti behar ez dena.

Energia-aurrezpenarekiko konpromisoa da ingurumen-iraunkortasunaren aldeko apustu instituzionalaren bermerik handiena.

Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, posible da aurrera egiten jarraitzea aurrezpen handi eta mailakatuak dakarten neurrietan, kontsumo arrazoizkoagoko eta energia-errentagarritasun handiagoko elementuak aplikatuta; esate baterako, kontsumo txikiko lanparak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Renove" plan bat abian jar dezan, kontsumo txikiko milioi bat lanpara-bonbillakoa, bereziki etxebizitza, bulego eta dendetarako, gaur egungo lanpara-bonbillen ordez horiek jarritz gero eta abantaila ekonomiko nabariaren bidez aurrera egin ahalko baita energiaren kontsumoaren murrizketan, eta Nafarroak oro har eta nafarrek, zehazki, aurreztu ahalko baitute.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzaren ikuskapena egin dezan, Etxebizitzari buruzko Legean etxebizitzaren okupazioaren eta erabileraren gainean ezarritakoa betetzeari dagokionez.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita babes ofizialeko etxebizitzaren ikuskapena egin dezan, Etxebizitzari buruzko Legean etxebizitzaren okupazioaren eta erabileraren gainean ezarritakoa betetzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gure erkidegoan milaka pertsona gelditzen dira babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenetik kanpo, nahiz eta legeak halako etxebizitzak eskuratu ahal izateko ezartzen dituen baldintzak bete eta eginiko eskaintza publikoetan izena eman.

Etxebizitzari buruzko Legeak ezartzen ditu zer baldintza bete behar dituzten, okupazioari eta erabilerari dagokienez, babes ofizialeko etxebizitzaren baten emakida-hartzaileek.

Errealitatea ezagutzen dugunez, susmoa dugu eskakizun horiek ez direla beti betetzen eta, kasu askotan, etxebizitzak ez direla garaiz okupatzen edo duten xedeaz oso bestelako erabilera ematen zaiela.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua premiatzen du izari handiko ikuskapena egin dezan, aztertze aldera zein egoeratan dauden babes ofizialeko etxebizitzak gure erkidegoan, Etxebizitzari buruzko Legean horien okupazioari eta erabilerari buruz ezartzen diren baldintzen betetzeari dagokionez.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indargabetu dezan Nafarroako Errege Bardearen zati bat defentsa nazionalerako lehentasunezko interesgune deklaratzeko duen dekretua, eta tiro poligono militarra mantentzearen aurka agertzen da.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita indargabetu dezan Nafarroako Errege Bardearen zati bat defentsa nazionalerako lehentasunezko interesgune deklaratzeko duen dekretua, eta tiro poligono militarra mantentzearen aurkako jarrera agertzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak lege esparru berekia definitu zuen, babesteko moduko balio bereziak dituzten Nafarroako eremuak babestu, kontserbatu eta hobetzea helburu.

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak, berriz, natur parke deklaratu zuen Nafarroako Errege

Bardea, tiro poligonoa ere Bardeako muga geografikoaren barruan sartuta.

Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen erabaki bat, zeinaren bidez adierazi baitzuen bere desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea hitzarmen indarduna 2008ko abenduan bukatutakoan, eta Defentsa Ministerioa premiatu baitzuen Bardeako tiro poligonoarentzat ordeko kokaleku bat aurki dezan. Hala eta guztiz ere, Carme Chacón Defentsa ministroak baieztatu du bere ministerioa lanean ari dela Errege Bardearen lurraldearen iraupen luzeko lagapena lortzeko, eta aukeretako bat dela hogeita hamar urteko lagapena lortzea.

Defentsa Ministerioak emandako argudioa inkoherentea da; izan ere, ministerioak dio tiro poligonoari esker dutela florak eta faunak babesik onena eta Bardea ondoko herrietako herritarren segurtasuna zeharo bermatuta dagoela. Babesari eta segurtasunari buruzko argudio horiek ikusita, argi dago Defentsa Ministerioari ez zaiola asko kostatuko egungoa baino toki aproposagorik aurkitzea tiro poligono bat jartzeko, natur parke batean baitago.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du indargabe dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten gainean eginiko deklarazioa, defentsarako lehentasunezko intereseko eremu izatearena.

Nafarroako Parlamentuak adierazten du tiro poligonoa Errege Bardean mantentzearen aurka dagoela, eta, hortaz, arbuiatzen du Defentsa Ministerioaren jarrera, Errege Bardeako Batzarrekin sinatuta duen erabilera-lagapenerako kontratua hogeita hamar urtez luzatzearena.

Iruñean, 2008ko urriaren 16an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasun gradu eta mailen balorazio baremoa aplikatzeko irizpideak 504/2007 Errege Dekretuaren eta 39/2006 Legearen arabera presta ditzan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mendekotasun gradu eta mailen balorazio baremoa aplikatzeko irizpideak 504/2007 Errege Dekretuaren eta 39/2006 Legearen arabera presta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Mendekotasun gradu eta mailen balorazio-baremoari buruzko informazioa igorri du Gizarte Gaietako Departamentuak; horren arabera, balorazio hori oinarritzen da galdetegi baten aplikazioan eta baloratu beharreko pertsonaren zuzeneko behaketan, profesional kualifikatu batek, balorazio-baremoaren gaineko prestakuntza egokia duenak, egindakoan.

Foru Komunitatean eginiko zenbait balorazioen emaitzak ikusita, uste dugu ez direla egokitzen ez abenduaren 14ko 39/2006 Legean ez 504/2007 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege dekretu horretako aplikazio irizpideak askoz zabalagoak dira Gizarte Gaietako Departamentuak jasotakoak eta parlamentari honi emandako erantzunean azaldutakoak baino. Besteak beste, nabarmentzekoa da bigarren aplikazio irizpidea. Hala dio: "Balorazioa eginen da kontuan hartuta pertsona-

ren osasun egoerari eta bizi den inguruneari buruzko txostenak, eta kontuan hartuta, kasua bada, agindu zaizkion..." Orobat dira nabarmentzekoak seigarren eta zazpigarren irizpideak.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko 39/2006 Legeko 27. artikuluko 5. idatz-zatiak, berriz, ondokoa dio hitzez hitz: "balorazioa eginen da kontuan hartuta pertsonaren osasun egoerari eta bizi den inguruneari buruzko txostenak, eta kontuan hartuta, kasua bada, agindu zaizkion laguntza teknikoak, ortesiak eta protesiak". Hori da, gure ustez, mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren balorazio zuzena lortzeko modu egoki eta ezinbestekoa.

Gure ustez, ez da nahiko, eta desegokia da, batere txostenik gabe aplikatzea galdetegi bat eta zuzenean behatzea mendekotasun egoeran dagoen pertsona. Legea eta errege dekretua argiak dira horri dagokionez. Hortaz, Foru Komunitatean irizpide horiek aplikatu beharko dira pertsonen mendekotasun mailak ezarri eta behar bezala sailkatzeko.

Gizarte Gaietako Departamentuak emandako informazioaren arabera, berriz, balorazioa eskatzen denetik balorazioa egin bitarte itxaron behar izaten den denbora hiru hilabetetik beherakoa da, baina hori ez da guztiz egia, itxaron behar izaten den denbora errealak zazpi hilabete ingurukoa baita.

Hori dela-eta, erabaki proposamen hau aurkeztzen dut:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan eta abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 27. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritakoarekin bat egin daitezkeen balorazio-baremoa aplikatzeko irizpideak.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du balorazioa eskatzen denetik balorazioa egin bitarte itxaron beharreko denbora hiru hilabetetik beherakoa izan dadin.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kasuko zerbitzua langile kualifikatuaren bidez sendotu dezan, lan hori arauak eta ezarritako epea betez egite aldera.

Iruñean, 2008ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hurrengo lan eskaintza publikoan sar dezan musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hurrengo lan eskaintza publikoan sar dezan musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Musikako eta arte eszenikoetako irakasleak funtzio publikoan sartzeko lan eskaintzarik ezaren ondorioz, ikastetxeetako plantillak ezegonkorak dira eta ez dago ez kohesiorik ez kalitaterik, irakasle-aldaketan erruz.

2004an musika irakasleentzako sei lanpostu atera ziren eskaintza publikoan: konposizioko oinarrietako lanpostu bat, saxofoiko lanpostu bat, perkusioko lanpostu bat, pianoko lanpostu bi eta musika-hizkuntzako lanpostu bat.

Kontuan hartuta % 60ko bitartekotasuna dagoela gaur egun esparru horretan, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntzako hurrengo lan eskaintza publikoan sar dezan musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoa.

Iruñean, 2008ko urriaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan irakasleen kidegoetan sartzeari, igotzeari eta espezialitate berriak hartzeari buruzko erregelamendua.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan irakasleen kidegoetan sartzeari, igotzeari eta espezialitate berriak hartzeari buruzko erregelamendua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Uste dugu beharrezkoa dela lan eskaintza publiko handia egiten jarraitzea, irakaskuntzan egonkortasuna hobetze aldera. Hautaketa-prozesua oso garestia da, eta ez du ematen eraginkorra

denik lanpostuak bete gabe gelditzea, oposizio deialdi batek dakarren ahalegin pertsonal eta ekonomikoaren ondotik, baldin eta oposizioa gainditu duten pertsonak badaude.

Irakasleen kidegoetan sartzeari, igotzeari eta espezialitate berriak hartzeari buruzko erregelamendua onetsi zuen 276/2006 Errege Dekretuko 28. artikulua argi eta garbi galarazten du deituta-ko lanpostu kopurua baino handiagoa izatea oposizioaldia eta lehiaketaldia gainditu dituztenen hautagaien puntuazioaren araberrako zerrenda.

Autonomia erkidego batean baino gehiagotan aurkeztu eta prozesua gainditu duten irakasleak badaudenez, uko egin behar diote lanpostuari erkidegoren batean. Horrek esan nahi du lanpostu horiek –azken deialdi honetan, 19 lanpostu– bitarteko irakasleen bidez betetzen direla, are probak gainditu dituzten pertsona horien bidez, halako moduz non oposiziogilearen asmoa zapuzten den eta ez den betetzen ikastetxeei egonkortasuna emateko eta bitartekotasuna murrizteko helburua.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan eta oinarritzko araudiaren aldaketa susta dezan, baldin eta lanpostua lortu duten izangaiek uko egiten badute, lanpostu huts horiek oposizio-lehiaketa gainditu dutenen zerrendako hurrengoei eskain dakizkien.

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko edo igotzeko hurrengo deialdietan lanpostu hutsen zerrenda bakarra ezar dezan, halako moduz non ez den behartuko aukera egitera hizkuntza arrazoiak direla eta.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko edo igotzeko hurrengo deialdietan lanpostu hutsen zerrenda bakarra ezar dezan, halako moduz non ez den behartuko aukera egitera hizkuntza arrazoiak direla eta

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Irakaskuntza publikoan sartzeko edo bertara igotzeko prozedurek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak izan behar dituzte oinarri. Berrikitan, irakurtzeko edo entzuteko aukera izan dugu, norbanakoen nahiz sindikatuengandik kezka eragiten duela kontratazioen euskarazko zerrenda bat eta gaztelaniazko beste bat egoteak.

Halatan, ez dira errespetatzen berdintasun eta merezimendu printzipioak, eta horretaz gain, argi eta garbi diskriminatzen dira gaitasuna dutelako bi hizkuntzetan aurkez daitezkeen pertsonak, probak

aldi berean egiten direnez ezin baitira bietara aurkeztu.

Azaroaren 29ko 1701/1991 Errege Dekretuak ezartzen du oposizioak espezialitateen arabera egin behar direla, eta egia bada ere autonomia bakoitzean dauden hizkuntzek espezialitate bat sortzen dutela, ez da egia espezialitateak bikoizten direla; izan ere, esate baterako, ez dira existitzen “matematika gaztelaniaz” eta “matematika euskaraz” espezialitateak. Bikoizketa hori erabat artifiziala da, eta erkidego honetan baizik ez da gertatzen. Proba egiteko unean pertsona bakoitzak hautatu behar duen hizkuntza gorabehera –hizkuntza hautatu beharra ez da gertatzen izena ematean ordainketa egiterakoan–, pertsona horrek lekualdatze-lehiaketa batean parte har dezake beste erkidego batera joateko, baldin eta lanpostu bakoitzari esleitu zaion hizkuntza-eskaki-zuna betetzen badu. Beraz, zentzugabea da, gure ustez, hizkuntzaren arabera bereiztea espezialitate bakoitzean bete beharreko lanpostuak.

Guk uste dugu erkidego honetan, merezimendua eta beharrezan gisa hartu beharrean, elebitasuna zigortu egiten dela.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko edo bertara igotzeko hurrengo deialdietan lanpostu hutsen zerrenda bakarra ezar dezan, halako moduz non ez den behartuko hautaketa-prozesua baino lehen aukera egitera hizkuntza arrazoiak direla eta. Lanpostu baterako eskatzen den hizkuntza badakiela frogatu ondoren hautatuko du izangaiak lanpostua, oposizioaldia eta lehiaketaldia gainditu dituztenen puntuazioaren arabera zerrendari jarraikiz.

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait alderdi kontuan har ditzan irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko proben deialdietan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait alderdi kontuan har ditzan irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko proben deialdietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Sindikatuaren ordezkariak eta hedabideak adierazi zigutenez, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartu eta bertara igotzeko eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetan sartzeko hautaprobak ondorioz haserrea sortu da eta kritikak jaso dira gure erkidegoan, ariketak nahiz programazio eta unitate didaktikoak ebaluatu eta horien nota jartzean egon den argitasun ezak eraginda.

Denbora behar izaten da oposizioak prestatzeko, eta aurkezten diren pertsona gehienek lanaren artean eta oposizioa prestatzen banatu behar izaten dute euren. Horregatik da beharrezkoa ahalik eta azkarren ematea jakitera ikasgaien zerrenda, espezialitateak, lanpostu kopurua eta abar.

Epaimahaiko kideen hautaketa, zozketa bidezkoa, behar adinako denborarekin egin behar da (urtarrilean, baldin eta hautaprobak ekainean egin badira), horien arteko koordinazioa, beharrez-

koa dena ebaluazio-irizpide bateratuak ezartzeko, errazte aldera. Irizpide bateraturik ezak ezinegona eta haserrea eragin ditu oposizioa egin duten irakasleen artean; izan ere, interpretazio gutxienik ere dibergenteak egon direneko egoerak gertatu dira espezialitate bereko epaimahaietan (epaimahaien informazioak bat ez etortzea, puntuazio ezberdinak...). Hori guztia, seguruena, ez da epaimahaietako kideei egotzi beharreko zerbitzu, ezpada ebaluazio irizpideak alde aurretik finkatu ez izanari. Epaimahaietako kideen arteko koordinazioak aparteko dedikazioa eskatzen duenez gero, horiek ordezkatzeko aurrekusi beharko da, Hezkuntza Departamentuaren kargura hain zuzen ere.

Hori guztia gorabehera, bada proposamen bat, epaimahaiak beste autonomia erkidego batzuekin trukatzekoa, probak ebaluatzean objektibotasun eta inpartzialtasun handiagoa lortze aldera. Ebaluatzailea eta oposiziogilea ikastetxe berean, eta are mintegi berean, lan egitea ez da samurra izaten horientzat, eta laneko gatazkak eta gatazka pertsonalak eragin ditzake. Inpartzialtasun ezari buruzko mesfidantzak, epaimahai bereko kideen arteko irizpide ezberdinak, favorismo-susmoak eta abar ekidin daitezke epaimahaien arteko truke horren bidez.

Azkenik, ebaluazio prozesua bera eta izangaiak nola ebaluatuko zaien alde aurretik jakitea bermatze aldera, beharrezkoa da ebaluazio irizpideen txantilo bat prestatzea, bai A probarako bai B probarako. Irizpide horiek, alde aurretik ezagutu behar baitira, argiak, objektiboak eta publikoak izan behar dute. Horrela jokatzeko gero, oposizio prozesuaren gardentasuna bermatzen da eta azterketak berrikusi ahal izateko atea irekitzen da.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, irakaskuntzan egiten diren hurrengo deialdietan, ondokoak kontuan har daitezkeen:

1) Epaimahaietako kideak zozketa bidez hautatuko dira, eta salbuetsita geldituko dira lehenago hautaprobaren batean parte hartu dutenak. Hauta-

probak egin baino bost hilabete lehenago eginen da hautaketa.

2) Epaimahaietako kideen arteko koordinazio bilerak eginen dira, ebaluazio irizpideak bateratze aldera. Hori horrela egin ahal izateko, epaimahaietako kideen ordezkapena eginen da, Hezkuntza Departamentuaren kargura.

3) Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak edo epaimahaietako kideek ebaluazio irizpideen txantilo bat prestatuko dute, bai A pro-

barako bai B probarako. Irizpide horiek argiak, objektiboak eta publikoak izanen dira, eta probak egin aurretik behar adinako denborarekin emanen dira ezagutzera.

4) Betiere, proba objektiboak berrikusi ahal izatea bermatuko da.

Iruñean, 2008ko urriaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza desberdinetan idatz ditzan Arellanoko villa erromatarreko interpretazio zentroan bisitarien eskura jartzen diren informazio guztiak, bai eta Nafarroako eskaintza turistikoan sartuko diren guztiak ere.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hizkuntza desberdinetan idatz ditzan Arellanoko villa erromatarreko interpretazio zentroan bisitarien eskura jartzen diren informazio guztiak, bai eta Nafarroako eskaintza turistikoan sartuko diren guztiak ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatua izan dadin.

Azalpena

2008ko urriaren 15ean Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak Arellanoko Villa Erromatarren instalazioetara bisita egin zuen.

Bisita horretan parlamentu-batzordeko kideek bai eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilari jaunak eta haren menpeko Kultura eta Turismo zuzendari nagusiek ere hartu zuten parte.

Bisita horretan, Carlos Erce Eguaras Turismo zuzendari nagusi jaunak adierazi zuen Arellanoko villa erromatarrean eragindako lan eta inbertsioek Arellanoko villa erromatarra produktu turistikoa bihurtu dutela eta Nafarroaren eskaintza turistiko orokorrean sartzeko asmoa dagoela.

Nafarroaren eskaintza turistiko orokorrean sartzeari Arellanoko villa erromatarra eta haren inguruko interpretazio zentroa turismo etorrera handiaren beharri egokitzea eskatzen du. Hau da, indusketa lanek agerian utzitako aztarnategia eta horren inguruko interpretazioa eskuragarri eta ulergarri egin beharko zaie jatorri ezberdineko bisitariari. Horrek bisitariari eskaintzen zaien informazio guztia gaztelaniaz ez ezik bertze hizkuntza batzuetan ere agertzea eskatzen du, instalazio horietako errotulu, panel eta seinalizazioetan nola bisitarien eskura jarriko diren esku-paper, biorriko eta halako guztietan ere.

Gogoeta hori, Arellanoko villa erromatarrekin bezala, Turismo Zuzendaritza Nagusiak era orokorrean zabaltzen dituen edo zabalduko dituen produktu turistiko guztiekin ere egin daiteke.

Hori horrela, honako hau da mozioa:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Arellanoko villa erromatarraren interpretazio zentroko errotulu, informazio panel, seinale nola bisitarien eskura jartzen diren esku-paper, biorriko eta halako guztiak Nafarroako hizkuntzetan (gaztelaniaz eta euskaraz) ez ezik ingelesez eta frantsesez ere idatz ditzala, bisitari

etorrera handi eta anitzaren beharretara egokitzeko.

- Irizpide hori Nafarroaren eskaintza turistikoro korrean dauden eta horretan sartuko diren instalazio eta produktu guztietara aplikatzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, milurtekoaren garapen helburuei babesa ematekoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“2008a giltzarria da txirotasunaren aurkako mundu-borrokari dagokionez. Milurtekoaren garapen helburuei buruzko goi bilerak, NBEko idazkari nagusiaren ekimenez 2008ko irailaren 25ean egin zenak, agerian utzi zuen premiazkoa dela maila guztietako ekintzak sustatzea, milurtekoaren garapen helburuak lortuko badira. Aurtengo urriaren 17an, Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren kariatara, mundu osoan egin diren mobilizazioetan milioika herritarren ahotsak altxatu dira, munduko buruzagiak premiatzen dituztenak milurtekoaren garapen helburuak lortzeko konpromisoak betetzera. Ezinbestekoa da herritarrak sentsibilizatzeko lana egitea, baldin eta ekintzarako deia sendotu eta gizarteko sektore guztiak bultzatu nahi baditugu.

Nafarroako Parlamentua guztiz inplikatur dago milurtekoaren garapen helburuak lortzeko zereginen: pobrezia eta gosea desagerraraztea, haur guztiak oinarriko hezkuntza jasotzen dutela bermatzea, genero-berdintasuna sustatzea, amen eta haien seme-alaben osasuna hobetzea, GIBHIESaren hedapena geldiaraztea, txaboletako bizilagunen bizi-baldintzak hobetzea, edateko ura eta saneamendua bermatzea, ingurumena babestea eta garapenerako mundu-aliantza bat sortzea, bermatuz herrialde aberatsek laguntza handiagoa eta hobe ematen dutela, herrialde txiroenen zorra murrizten dutela eta horien merkataritza-aukerak hobetzen dituztela. Horregatik guztiagatik, 2007ko abenduaren 11n, Parlamentu honetako talde guztiak, “Pobreziarik ez Nafarroan” plataformako ordezkariekin batera, Pobreziaren aurkako Nafarroako Ituna sinatu zuten, pobrezia desage-

rrazte aldera gure erkidegoko herritarrek hartutako konpromisoaren erakusgarri.

Nafarroako Parlamentuak ondokoa eskatzen die han-hemengo gobernuei:

Milurtekoaren Adierazpenean eginiko agintzak bete ditzaten eta pobrezia desagerrarazteko aukera historiko hau balia dezaten, munduan bakeari bidea irekitzea helburu.

Milurtekoaren garapen helburuak munduko herrialde guztietan betetzen direla berma dezaten.

Garapenerako laguntza ofizial gisa % 0,7a bideratzen dela berma dezaten; laguntzaren eraginkortasunari buruzko konpromisoak, Parisko eta Accra-ko deklarazioetan hitzartutakoak, bete ditzaten; gutxien aurreratu diren herrialdeen kanpo-zorra kita dezaten, eta milurtekoaren garapen helburuak betetzen laguntzen duten merkataritza-baldintzak ezar ditzaten.

Nafarroako Parlamentuak ondoko konpromisoak hartzen ditu:

Milurtekoaren helburuak 2015erako lortzen lagunduko duten politiketan aurrera egitea, herritarren parte-hartzea nahiz gizarte zibilarekiko eta sektore pribatuarekiko aliantzak sendotuko baititu.

Sentsibilizazio-ekimenak babestea, sustatze aldera Europako eskualdeetako parlamentuen eta herritar konpromisoa, milurtekoaren garapen helburuak 2015erako betetzearen aldekoa.

Gure herrialdeetako gobernuei helaraztea milurtekoaren garapen helburuekiko gure konpromiso irmoa eta horiek premiatzea milurtekoaren adierazpenean hartutako konpromisoak betetzera.

Garapenerako lankidetzarako gure jarduketan koordinazioa eta eraginkortasuna hobetzea, Laguntzaren eraginkortasunari buruzko Parisko Adierazpeneko printzipioekin bat eta Laguntzaren

eraginkortasunari buruz 2008ko irailean Accra-n egindako Goi Bileraren ondorioekin bat.”

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak duen iritziari buruzkoa, 2009ko Estatu-ko aurrekontu orokorretan aurreikusten diren inbertsioei dagokienez.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak duen iritziari buruzkoa, 2009ko Estatu-ko aurrekontu orokorretan aurreikusten diren inbertsioei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernu-ko lehendakariari, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia 2009ko Estatu-ko aurrekontu orokorretan Nafarroarako aurreikusten diren inbertsioei buruz? Onargarritzat, txartzat edo hutsaren hurrengotzat jotzen al ditu?

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak emandako informazioak eta aurkeztutako galderen erantzunak beti osatu gabeak izaten diren edota galdetutakoari ez dioten erantzuten.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak emandako informazioak eta aurkeztutako galde-

ren erantzunak beti osatu gabeak izaten diren edota galdetutakoari ez dioten erantzuten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zuk zuzentzen duzun departamentuari buruz parlamentari gisa egiten ditudan informazio eskariak erantzunak osatu gabeak izan ohi dira, edo ez diote galdetutakoari erantzuten. Zergatik gertatzen da hori behin eta berriz?

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Euskararen Legea betetzeari buruzkoa.*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Euskararen Legea betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Nafarroako Parlamentuko erregelamenduan xedatutakoaren arabera,

euskararen legearen betetzea dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Euskararen Legeak honako hau dio 27. artikuluan:

“Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan. Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu.”

Euskarazko hedabideak diru laguntzarik gabe utzi ondoren, uste al du Kontseilariak legea betetzen ari dela?

Iruñean, 2008ko urriaren 13a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko zer eginen duen Hezkuntza Departamentuak kalitatearen kudeaketa-sistemetan sartuta dauden ikastetxeek iragan behar dituzten auditorietatik ondorioztatzen diren balizko ohar eta gomendioak direla eta.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer eginen duen Hezkuntza Departamentuak kalitatearen kudeaketa-sistemetan sartuta dauden ikastetxeek iragan behar dituzten auditorietatik ondorioztatzen diren balizko ohar eta gomendioak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilari Pérez Nieves jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer eginen du Hezkuntza Departamentuak, kalitatearen kudeaketa-sistemetan sartuta dauden ikastetxeek iragan behar dituzten auditorien emaitza diren balizko desadostasun, ohar eta gomendioak direla eta?

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Lizarra-Olazti galtzadak jasandako hondatzearen berri.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Lizarra-Olazti galtzadak jasandako hondatzearen berri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román

Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Gure erkidegoko toki batetik bestera ahal den modurik onenean joan ahal izatea etengabeko ardura bat izan da historiaurrean gure lurraldean jendea bizitzen hasi zenetik gaur arte. Galtzaden sorrerak eta kontserbazioak garrantzi handiena hartu zuten aldiak bat erromatarren garaia izan zen, eta huraxe izan zen, gainera, baskoien erromatarte prozesuaren gakoetako bat.

Ondorengo mendeetan sare hori indartu eta zabaldu egin zen, baina ia bere horretan mantendu zen XVIII. mendea aurreratu samar egon arte. Hortik heldu da "galtzada erromatarra" izena, zeina erabili izan baita gure lurraldea zeharkatzen duten bide historikoetako tarte batzuk izendatzeko.

ko; halere, gaur egun ezin da zehazki esan aurkitzen ditugun aztarnak zalantzarik gabe garai hartakoak direnik.

Horixe da Ameskoa eta Sakana mendeetan lotu dituen galtzadaren kasua, joan den mendeko hogeiko hamarkadan Lizarra - Olazti errepidea eraiki zen arte. "Mendia modu azkarrean eta zuzenean zeharkatzen duen pasabidea da, eta horrexegatik handixe izaten ziren jendearen joan-etorri gehienak", dio Balbino García de Albizuk, hain zuzen ere Ameskoari buruzko zenbait liburu idatzi dituenak eta eskualdea hobekien ezagutzen dituenetakoa denak.

Ba, zalantzarik gabe zaindu beharreko ondarea bat zena, daukan antzinatasuna gorabehera, hein batean suntsitu dute berriki. Makina astun batzuek Biotza aldeko antzinako harrien zati handi bat altxatu du, izen bereko kanpinetik hurbil. Lizarrerriko Ikerketa-Guneak (CETE-LI), hain zuzen

ere merindadeko ondarea zabaldu eta kontserbatzeko sorturiko elkarteak, alarma-deia jo zuen irailan, baina gaur arte, guk dakigunez, ez da ezer ere egin jasandako eraso dela-eta konponbidea jartzeko.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Galderaren testua

– Izan al du Nafarroako Gobernuak gure erki-degoko ondare kulturalaren aurkako ekintza horren berri?

– Arduradunak identifikatu al ditu?

– Zein ekimen jarri ditu abian edo jarriko ditu abian, eta noiz, ondare kulturalan jasandako eraso hori dela-eta konponbidea jartzeko?

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Bardeako tiro poligonoko errentamendu-kontratua berritzeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Bardeako tiro poligonoko errentamendu-kontratua berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakari Sanz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Bardeako tiro poligonoaren gaineko kontratua berritzeari buruzko galdera.

Espaniako Gobernuak ministro Carme Chacón andreak iragarri du ministerioak Bardeako tiro poligonoaren gaineko kontratua beste 30 urterako berritzeko asmoa duela. Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak horri buruz?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Sinboloei buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Sinboloei buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Sinboloei buruzko legearen aplikazioari buruzko galdera.

Zergatik ez zaie errekerimendurik egin udalei ikur frankistak erretira ditzaten?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Cortesen lurzatieen berrantolamendua eteteari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Cortesen lurzatieen berrantolamendua eteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zergatik geldiarazi du Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak Cortesko lurzatieberrantolamendua?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Barañain Auditorioa fundazioari ematen dion laguntzari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Barañain Auditorioa fundazioari ematen dion laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean erantzun dezan.

Barañaingo Auditorioa

Nafarroako Parlamentuak, Osoko Bilkuran onetsitako mozio baten bitartez, Nafarroako

Gobernua premiari zuzentzeko epean elkarrikeriaren hasieran Barañain Auditorioa Fundazioarekin, lankidetzan hitzarmen edo akordio berezi bat sinatze aldera, Nafarroarentzat baliazteko Barañaingo udalerrian dagoen gune eszenikoa, egoki irizitako programa eta lanak egin ditzan aginduz.

Geroago, kontseilariak esan zuen Auditorioa Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza egonkorra izan zitekeela, eta bertan, gainera, dantza-programak egin ahal zirela; gainera, UPNk Barañaingo Udalean duen udal taldeak Barañaingo Udalaren Osoko Bilkuran adierazi zuen Kultura eta Turismo Departamentutik 100.000 euroko laguntza iristea espero zutela.

“Tempus fugit” zioen adagio latindarrak; denbora hegan doa, eta badirudi kultur gune berezi horretarako konponbidea geroko uzten ari dela. Hori guztia dela eta, ondoko galdera egiten diogu Juan Ramón Corpas kontseilariari.

Edozein eratako zein laguntza emanen dizkio Kultura eta Turismo Departamentuak Barañaingo Udalaren menpean dagoen kultur gune garrantzitsu horri?

Iruñean, 2008ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliz paratu diren bide-seinaleetan agertzen diren toponimo ez zuzenei buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliz paratu diren

bide-seinaleetan agertzen diren toponimo ez zuzenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai taldeko foru parlamentari Paula Kasares andreak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Kultura Departamentuak pararazi dituen bide-seinaletako toponimo ez zuzenak direla eta, ondoko galdera hau egin nahi du Kultura eta Turismo-Vianako Printzea Erakundearen Departamentuko Kontseilariak dagokion batzordean ahoz erantzun diezai-on.

– Zer egingen du Kultura eta Turismo-Vianako Printzea Erakundearen Departamentuko kontseilari jaunak bere Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaletako toponimo ez zuzenak zuzentze aldera? eta zer neurri hartuko du Nafarroako toponimia ofiziala zuzen erabiltzea bermatzearren?

Adibidez, ondoko bide-seinale hauek:

Iruñean, 2008k urriaren 16an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, Erronkariko ur-amilei buruzko proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena egin ez izanari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Erronkariko ur-amilei buruzko proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena egin ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on.

Eska ibaian ur-amilen ubide bat egiteko proiektua presatik behera hasten da, eta 700 metro inguru hartzen ditu Erronkariko herrigunean barna. Ibaia 0,75 metroko sakonerarekin dragatu edo hondeatzean datza, 10 metroko zabalarekin, eta ibaiaren gaurko ibilguaren gainerakoa pasealeku gisa utziko litzateke. 75 metroan behin

harri-lubetak jarriko lirateke, eta alboetan, berriz, dikeak.

Jarduera hori guztia Natura 2000 sareko Eska eta Biniés ibaietako ES-2200027 Batasunaren Intereseko Lekuari dagokio, eta horrenbestez, proiektua abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuko 2C eranskinetako P atalean sartzen da; izan ere, dekretu horren bidez onetsi zen Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua. Jarduera horretarako, betiere, ingurumen-ukipenentarako baimena behar da.

Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuak eta Ur Zerbitzuak igorritako txostenak ikusi ondoren, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak, 2008ko apirilaren 18an, informazio osagarria eskatu zion Erronkari Ibarreko Batzarrari, jarduteko alternatibei buruz nahitaez egin beharreko azterlanaren gainean.

Erronkari Ibarreko Batzarrak, maiatzaren 20an, eskari horri erantzun zion, eta erantzunean ibaitartea aukeratzeko jarraitutako prozesua justifikatzen zuen. Aurreikusitako erabilera eta hura gauzatzeko baldintzak ere jasotzen dira. Landaredian eta faunan dituen eraginak aipatzen ditu, eta, azkenik, azaltzen du obrek irauten duten bitartean ukipenak larriak izanzen direla, baina epe motzean jarduera eta arrantza bateragarriak izanzen direla.

2008ko ekainaren 10ean, sustatzaileak eskariari eman zion erantzuna ikusita, Ur Zerbitzuak jakinarazi zuen bere eskumeneko gaietan gaur egun ez dagoela arrazoibide nahikorik aurkeztutako ingurumen-ukipenen azterlanaren ondorioak

zehaztasunez ebaluatzeko, eta jada artifizial bihurturiko hiriko tarte bat denez, lanetarako baimena eman daitekeela Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ezartzen dituen baldintzetan, bera baita Urari buruzko 2000/60/CE Esparru-zuzentarauaren aplikazioa zaindu behar duen erakundea; halaber, erakunde horrek bermatu behar du Eska ibaiaren eta haren ekosistema elkartuen egoera ekologiko egokia, eta Jabari Publiko Hidraulikoa defendatzeko dauzkan eskumenez baliatu behar du, halaber.

2008ko ekainaren 22an, Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuak informazioa eman zuen bereziki zaindu beharreko balioei buruz, hain zuzen ere neurri zuzentzaile eta ingurumen-jarraipenerakoak aplikatzea eskatzen dutenak. Zehazki, aipatzen da maila freatikoak behera egin izanak landaredian, bereziki sahasian, izan dezakeen eragina kontrolatu beharra dagoela, bai eta jardueraren tokian

eta handik behera dauden arrainen errute-lekue-tan izan dezakeen ukipena ere. Bestalde, bermatu beharra dago ibaiak duen korridore ekologikoaren funtzioa ez dela aldaraziko.

Hori dela eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nola da posible Erronkariko ur-amilen ubidea-rena bezalako proiektu batean, zeinari Nafarroako Gobernuak berriki ingurumen ukipenentarako baimena eman baitio, ingurumen eraginaren adierazpenik ez egotea, nahiz eta Natura 2000 sarean egon eta ekosistema nabarmen aldarazi, uraren esparru-zuzentarauaren betetzea bera ere arrisku-ari jarritz?

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008rako aurrekontuetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.-. Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

– 81130-810001-7609-458100, “Jarduera ekonomikoetarako udal eremuentzako laguntzak”

– 81140-810002-7609-425200, “Energia berriztagarrietan inbertsioak egiteko dirulaguntzak”

– 81140-810002-7800-425200, “Toki entitateek energia berriztagarrietan inbertsioak egiteko dirulaguntzak”

– 81140-810002-2276-425200, “Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoko neurrietatik heldu diren gastuak”

– 81140-810003-4701-425202, “Auditoriak, diagnosiak eta ikastaroak”

– 81300-820002-6031-467900, “Zerbitzu mugikorretarako eta LTDrako azpiegiturak”

– 81300-820002-6059-467900, “Telekomunikazioetako azpiegituren plana. FEDER”

– 81120-830001-7709-422200, “Inbertsioaren gastu fiskalak”

– 81210-840001-7709-467303, “I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako dirulaguntzak enpresentzat. FEDER”

– 81210-840001-7709-467303, “I+G+B proiektuetan eginiko inbertsioaren gastu fiskalak”

– 81210-840001-7819-467305, “Zentro teknologikoak finkatzeko dirulaguntzak. ITO”

– 81220-840002-4809-467902 “Banda zabaleko interneteko konexioak sustatzeko laguntzak”

– 81400-850001-4709-431300, “Kanpoko sustapenerako ekintzak” 84100-881001-4609-241100 “Gizarte intereseko obrak kontratatzeke dirulaguntzak”

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

2008rako aurrekontuetan, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

– 32100-310000-2276-261700. “Azterlanak eta lan teknikoak”

– – 32100-310000-4400-261703 “Sozietate publikoentzako transferentzia arruntak, toki entitatei laguntza emateko bulegoak direla eta”

– 32200-320000-4809-261202, “Etxebizitzarentamenduen zerga-gastuak”

– 32200-320000-4809-261400, “Etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzak”

– 32200-320000-7800-261400, “Etxebizitzaren arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak. Foru programa”

– 32200-320000-7800-261402. “Etxebizitzako bioklimatizazioarako dirulaguntzak”

2.- Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko urriaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2000-2008 aldian Klinika Unibertsitarioan artatutako gaixo kopuruari eta eginiko azterketa eta proba kirurgikoei buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, 2000-2008 aldian Klinika Unibertsitarioan artatutako gaixo kopuruari eta eginiko azterketa eta proba kirurgikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

– Klinika Unibertsitarioan arreta eman zaien gaixoen kopurua, urtez urte, 2000tik hasi eta 2008ra arte, eta lan horien kostuak.

– Klinika Unibertsitarioan eginiko azterketen kopurua, urtez urte, 2000tik hasi eta 2008ra arte, eta lan horien kostuak.

– Klinika Unibertsitarioan eginiko proba kirurgikoen kopurua, urtez urte, 2000tik hasi eta 2008ra arte, eta zerbitzu horien kostuak.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María

Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Ekainaren 10ean, aho batez onetsi zen arantza bifidoa duten gaixoei buruzko mozio bat. Hori dela eta, ondoko galderei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1. Zein egoeratan dago arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko protokoloa?

2. Izendatu al da erreferentziako teknikari gisa arituko den aholkulari aditua?

3. Hasi al dira arantza bifidoari aurrea hartzeko eta horri buruz informatzeko kanpainak?

4. Zuzemenen bat egin al da Nafarroan arantza bifidoaren gaixotasuna dutenei gaixo kronikoak direla aitortzeko?

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Reyno Gourmet publizitate kanpainari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Reyno Gourmet publizitate kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

Nafarroako Gobernuak urte anitzeko gastua konprometitzeko baimena eman dio Turismo zuzendari nagusiar, "Nafarroako Erresuma. Lur anitza" marka sar dezan "Reyno Gourmet" publizitate kanpaina sustatzeko euskarrietan eta ekintzetan. Aurrekontua 197.200 eurokoa da.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Aurrekontuko zein kontusailen kargura eginen da kanpaina horren gastua?

Nafarroako Gobernuak zein hizkuntzatan sustatuko du "Nafarroako Erresuma. Lur anitza" marka

kanpaina horretan?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, ibaiertzak lehengoratzeko proiektuei eta programei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, ibaiertzak lehengoratzeko proiektuei eta programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako otsailaren 5eko 48/2008 Foru Aginduan, Nafarroako arrantzari buruzko arauak ezarri ziren urte horretarako; besteak beste behar berezia ezarri zen Nafarroako salmonidoentza-

ko goi mailako eremuan amurraina arrantzatze-ko.

Foru agindu hori eta gure erkidegoko ibaien egoera orokorra azaltzeko, kontseilari andrea joan den apirilaren 2an agerraldia egin zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean.

Agerraldi horretan azaldu zuen 2005etik 2007ra bitartean 1.466.779 euroan gora egina zutela ibaietako ertz eta bazterretan eginiko habitaten lehengoratzeko lanek.

Agerraldi hura egin zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ondoren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Ibaietako ertz eta bazterrek lehengoratzeko zein proiektu esleitu dira edo exekutatu ari dira 2008an? Zenbat ordainduko da horietako bakoitzean?

2.- Ibaietako ertz eta bazterrek lehengoratzeko zein proiektu egin behar ditu Departamentuak epe motzean?

3.- Agerraldian aipatu zuen "ibaietako bazterrek lehengoratzeko programaren" kopia bat nahi dugu.

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, debekua betetzeari eta ibaietako ekosistemari kalte egin ahal izan dioten gorabehereri buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, debekua betetzeari eta ibaietako ekosistemari kalte egin ahal izan dioten gorabehereri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako otsailaren 5eko 48/2008 Foru Aginduan, Nafarroako arrantzari buruzko arauak ezarri ziren urte horretarako; besteak beste debeku berezia ezarri zen Nafarroako salmonidoentzako goi mailako eremuan amuarraina arrantzatzeko.

Foru agindu hori eta gure erkidegoko ibaien egoera orokorra azaltzeko, kontseilari andrea joan

den apirilaren 2an agerraldia egin zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean.

Aipatu agerraldian azaldu zuen 2008. urterako zaintza programa berezia ezarria zuela, debekuen betetzea bermatzeaz gainera, bereziki ibaietako ibilgu eta bazterren egoerak egiaztatzeko, uren kalitatea kontrolatzeko, balizko isuri kutsagarriengatik alerta deiak egiteko, ur-emarien araubidea betetzen den zaintzeko eta, azken batean, ibaietako ekosistema auzitan jar zezakeen edo hartan eragina eduki zezakeen edozein gorabeheraren berri izateko.

Agerraldi hura egin zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ondoren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Debekualdien betetzea dela eta, zenbat gorabehera antzeman dira? Zein izan dira?

2.- Ibaietako ibilgu eta bazterren egoera, uren kalitatearen kontrola, balizko isuri kutsagarriengatik alerta deiak, ur-emarien araubidea betetzeari buruzko zainketa eta ibaietako ekosistema auzitan jar zezakeen edo hartan eragina eduki zezakeen edozein gorabehera direla eta, zein arazo antzeman dira?

3.- Gorabehera edo arazo horietatik guztietatik, zein kasutan zabaldu da zehapen espedientea edo zein kasutan egin da bestelako jarduerarik? Nolakoa?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, ibaietako oztopoak iragazkorrago egiteko zenbait proiekturi buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, ibaietako oztopoak iragazkorrago egiteko zenbait proiekturi buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako otsailaren 5eko 48/2008 Foru Aginduan, Nafarroako arrantzari buruzko arauak ezarri ziren urte horretarako; besteak beste, beste berezia ezarri zen Nafarroako salmonidoentzako goi mailako eremuan amuarraina arrantzatzeko.

Foru agindu hori eta gure erkidegoko ibaien egoera orokorra azaltzeko, kontseilari andrea joan

den apirilaren 2an agerraldia egin zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean.

Aipatu agerraldian azaldu zuen 2005 eta 2007 bitartean 30 proiektu egin zirela ibaietako oztopoak iragazkorragoak izan daitezkeen; horietatik 21 exekutatu zeuden edo exekutatzeko adjudikatuta zeuden, eta gainerakoak epe motzean exekutatu behar omen ziren.

Agerraldi hura egin zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ondoren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Noiz aurreikusi du departamentuak Sunbillaiko Jorajuria errotako presa eraisteko proiektua gauzatzea?

2.- Noiz aurreikusi du departamentuak Baztango Oharrizko arrain-haztegiko presan mailak egiteko proiektua gauzatzea?

3.- Noiz aurreikusi du departamentuak Arraiozko errotako presan mailak egiteko proiektua gauzatzea?

4.- Noiz aurreikusi du departamentuak Antsolokuetako presan mailak egiteko proiektua gauzatzea?

5.- Departamentuak noizko egin nahi ditu Zaraitzu ibaiko Gorzako errotako presa iragazkorrago bihurtzeko lanak?

6.- Bestelako zein proiektu daude eginda eta zein denbora-aurreikuspen daude haiek exekutatzeko?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Amuarrainaren Lantalde Teknikoari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Amuarrainaren Lantalde Teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak otsailaren 5ean eman zuen 48/2008 Foru Aginduan, Nafarroako arrantzari buruzko arauak ezarri ziren urte horretarako; besteak beste behar berezia ezarri zen Nafarroako salmonidoentzako goi mailako eremuan amuarraina arrantzatze-ko.

Foru agindu horri eta gure erkidegoko ibaien egoera orokorrari buruzko azalpenak emateko, kontseilariak joan den apirilaren 2an agerraldia

egin zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean.

Aipatu agerraldian azaldu zuen Ehizarako eta Arrantzarako Autonomien arteko Komiteak, Nafarroaren ekimenez, Amuarrainaren Lantalde Teknikoa osatua zuela, eta haren lehenbiziko bilera Iruñean egin zela aurreko martxoaren 6an, eta beste erkidego batzuen informazio eta esperientzietan oinarrituz aztertu behar zela departamentuak arlo horretan erabiltzen zituen prozedurak berrikusi behar ote ziren.

Agerraldi hura egin zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ondoren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Ikusita lantalde horrek hiru helburu nagusi zituela –lehenbizi, autonomia erkidegoen egoera ezagutzea; bigarrenik, informazioa bildu eta truke-rako bideak eratzea; hirugarrenik, informazio hori landu eta aztertzea, amuarrainaren populazioaren bilakaera negatiboari konponbidea jartzeko–. Zein fasetan dago lantalde hori? Eratu al dira informazioa elkarrekin trukatzeko bideak?

2.- Amuarrainaren Lantaldeak eginiko lanetatik, departamentuak ondorioztatu al du gure ibaietako amuarrain populazioa mantentzeko eta handitzeko aplikatzen dituen prozeduretako batzuk berrikusi behar ote dituen?

3.- Nolako balorazioa egiten du departamentuak Amuarrainaren Lantaldeak egindako lanei buruz?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Natura 2000 Sareak ukitutako herriguneetan araztegi berriak egiteari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Natura 2000 Sareak ukitutako herriguneetan araztegi berriak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak otsailaren 5ean eman zuen 48/2008 Foru Aginduan, Nafarroako arrantzari buruzko arauak ezarri ziren urte horretarako; besteak beste debeku berezia ezarri zen Nafarroako salmonidoentzako goi mailako eremuan amuarraina arrantzatze-ko.

Foru agindu horri eta gure erkidegoko ibaien egoera orokorrari buruzko azalpenak emateko, kontseilariak joan den apirilaren 2an agerraldia egin zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean.

Agerraldi hartan azaldu zuen Natura 2000 Sareak ukitutako 250 eta 2.500 biztanle bitarteko herriguneetan hamar araztegi eraikiko zirela.

Agerraldi hura egin zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ondoren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Zein dira araztegi berri horiek eta zein den bora-aurreikuspen daude haiek egiteko?

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako zenbait eskola-daturi buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako zenbait eskola-daturi buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

– 2007-2008 ikasturteari buruzko datuak.

- Zenbat ikasle eskolatu ziren Haur Hezkuntzan, Lehen hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan Nafarroako Foru Komunitateko titulartasun publiko nahiz pribatuko ikastetxe bakoitzean?

- Zenbat ikasle eskolatu ziren 2 urteko geletan, maila hori irakasten duten ikastetxeetako bakoitzean?

- 2007-2008 ikasturtean, zenbat gela itundu egon zen funts publikoetatik ari diren ikastetxeetako bakoitzean, hezkuntza etapa bakoitzean?

– 2008-2009 ikasturteari buruzko datuak.

- Zenbat ikasle daude eskolatuta Haur Hezkuntzan, Lehen hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Nafarroako Foru Komunitateko titulartasun publiko nahiz pribatuko ikastetxe bakoitzean?

- Zenbat ikasle daude eskolatuta 2 urteko geletan, maila hori irakasten duten ikastetxeetako bakoitzean?

- 2008-2009 ikasturtean, zenbat gela itundu dago funts publikoetatik ari diren ikastetxeetako bakoitzean, hezkuntza etapa bakoitzean?

Iruñean, 2008ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	